



Zeberio II.ak jantzi du Buruz Buruko txapela Urrutiaren aurka gailenduta

ELDUAIN ▶ 35 eta 31ko emaitzarekin gailendu zen Patxi Zeberio atzo, final borrokatu eta lehiatuan ▶ 4




Patxi Zeberio garaipena ospatzen, atzo, Hernaniko Galarreta pilotalekuan. A.P.



NEREA URBIZU

V. Gazte Eguna giro jatorrean igaro dute

ANOETA ▶ Sagardo dastaketa, bazkaria, Kanika Txapelketa eta afaria izan zuten, besteak beste, egun osoan ▶ 5



TOLOSALDEA ▶

Baserriko emakumeak bizi duen egoera aztertu dute

Tolosaldean egin du azterketa Farapi enpresak; hutsuneak betetzen saiatzea da orain helburua ▶ 6-7

Emakume baserritarren egoera aztertu dute eskuadean. HITZA

TOLOSA ▶

Bilgune Feministak deituta, tratu txarrak salatu dituzte

Ostegunean hilik aurkitu zuten emakumea izan zuten gogoan ▶ 5



UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

...Baina behar zaitut



J oan dira desio izan zaitudan egunak, asteak, hilabeteak eta urteak. Mila bider madarikatuko zaitudan egunak datoz orain. Inoiz desio izan zaitut baina maitatu sekula ez. Maitale ase-gaitza zara, inoiz bukaerarik aurreikus-

ten ez zaiona. Udan gutxi oroitu naiz zurekin, gutxiegi gauza onerako. Banekien elkar ikusiko genuela aurrez erabakitako egun batean. Banekien baina ez nekien zer nola hartuko ninduzun, zintudan. Elkarrekin ondo konpontzea da gure eginbeharra. Ez nazazun ito neurria hartzen jakin behar dut. Ez naiz zure gose baina zu gabe ezin naiz ase. Zure arabera mugitzen da nire bizitza. Behar zaitut.

Zu gabe udako gauak luze aprobetxa-

tzen asmatu dut. Lagunekin egoteko nahi adina denbora izan dut. Zugana jateko premiari gabe, presarik gabe, obligaziorik gabe. Aske sentitu naiz, inoiz esplikaziorik eman behar ezak sortzen duen gozamen nire eginez. Berdin zitzaidan norekin nindoan, nora nindoran, zergatik eta zertara, noiz itzuliko nintzen. Berdin zitzaidan itzultzea bera ere. Berdin zitzaidan zein egunetan bizi nintzen eta zein zenbaki islatzen zuen egutegiak. Zuk ez ninduzun baldintzatzen.

Zuk ez ninduzun ezertara behartzen. Behar zaitut baina ez zaitut desio. Baina zu itzuli zara eta ni ere bai.

Zu zara, hala ere, goizero jaikitze arrazoi. Bizitza antolatze esola. Falta zaitudanean ezer ez doakit ondo. Urruntzen zaren aldiro zure bila aritu beharrrak itotzen nau. Gertu zaitudanean, berriz, zure betebeharrak itotzen nau. Ederra bezain gogorra zara. Antzematen da bihotzik ez duzula. Etorri zara berriz ere. Ongi-etorri lana!

IRUDI ZAHARRA ▶

Ikasturte berriari ohiko ongietorria

I. Terradillos ▶ Hondartzan, igerrilekuan, mendian... izan, atzerriko herrialdeak bisitatu, leku desberdinak ezagutu, aztertu eta jostatzeko egun ugari izan dituzte etxeko gaztetxoek. Eskualdeko neska-mutil askorentzat, ordea, gaur izango da udako oporraldiko azken eguna, bihar ikastetxera bueltatu beharko baitute ikasturte berriari ekitera. Batzuk goibel eta beste batzuk tristeago, askotariko aurpegiak eta jarrerak ikusi ahal izango dira ikaskideei ongietorria emango dieten lehendabiziko egun hauetan. Ondoko irudiak 30. hamarkadakoak dira, eta garaiko Tolosaldeko ikasle gaztetxoak agertzen dira. Beheko argazkian uztaiek jolasean ari dira. Goikoan, berriz, udalekuan dauden ikasleak ikus daitezke; kostaldeko herriren batean daude antza, marinel jantziak baituztute soinean.

HITZA



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitz.a.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

VILLABONA ▶ KULTURA



Oinkari taldekoak kalez jantzita. Behin Kataluniara joanda turismo pixkat egiteko aukera baliatu zuten. HITZA

Villabonatik Kataluniara

Oinkari dantza taldeak Katalunian bi emanaldi eman ditu eta dantzariak pozik bueltatu dira bai egindakoarekin bai eta jasotako harrerarekin ere

ALAZNE GURRUTXAGA

Euskal Herria eta Katalunia, Katalunia eta Euskal Herria. Beti izan da halako lotura berezi bat bi lurralde hauen artean. Zuzen-zuzenean bizitu du Oinkari dantza taldeak erlazio hori, eta ez behin soilik, birritan baizik. Herriko dantzariak euren pausoak Les Borges Blanques-erantz zuzendu genituen abuztuko bigarren asteburuan lehen aldiz, eta hil horretako azken asteburuan L'Arboç-era bigarrenez. Dantza tradizionalak eta koreografiak maletan sartuz euskal kultura etxetik kanpo erakusteko asmotan ekin genion bidaiari.

Aurrez eginiko lana handia izan zen, ez izan zalantzarik, baina guztia erakusteko ordua iristean barruko harra ere dantzan jarri zen. Urduritasunak urduritasun, dantzariok genuen guztia eman genuen taula gainean. Harrera ezin hobea izan zuten gure pausoak. «Noraino altxatzen duten hanka dantzari hauek!», «ikusi al duzu kaxaren gainean dantza-tzen duen mutikoa?», «edaldon-tziaren gainera salto egiteak ez du erraza izan behar, alajaina!». Harriduraz betetako esamesak entzuten ziren eszenatoki inguruan, beti ere zorionak ematera inguratzen zirenen zirrararekin tarteka-



L'Arboç herriko emanaldiko irudia da. Bertako herriko jaien barneburutu zuten emanaldia. Kaxarranka dantza egiten ari dira Oinkari dantza taldeko mutilak. HITZA

tuz. Gaua borobila izan zen, dantzarien eta ikusleen arteko konexioak bikain funtzionatu baitzuen.

Les Borges Blanques alde batera utzi eta dantza taldea L'Arboç-en pentsatzen jarri zen. Entsegu sorta baten oste-

an, iritsi zen berriz ere euskal dantzak etxetik ateratzeko eguna. Abuztuak 25, iluntzeko 22:30ak. L'Arboç-eko udal enparantza goraino beterik. «Zenbat lagun ote daude gure dantzen zain?», dantzari batek besteari galdera. «200?, 400?,

600?», galderetik erantzunetik baino gehiago zuten hitzak ordainetan besteak batari. Geroago jakin genuenez oker gembiltzan gure kalkuluetan. Mila pertsonen aurrean dantza egiteko ohorea izan zuen Oinkari dantza taldeak gau hartan. Sortu zen giro apartak eragina izan zuen dantzariengan, animoek eta txaloeak aurpegian marratzen ziguten irribarrea lekuko. Benetan saio animatua eta hunkigarria. Erraz ahazten ez den horietakoa.

Eta orain zer? Ezin oporrik hartu oraindik behintzat! Arrazoiak: Bermeo. Dantza taldearen hurrengo emanaldiko eszenatokia zehaztua dago, dantza tradizio handia duen Bizkaiko kostaldeko herri bateko enparantza. Helburua garbia da: ikus-entzule zorrotz bezain jakitun hauen aurrean puntako emanaldi bat eskaintzea. Kurtso azken emanaldia dela kontuan hartuz dantzariok dena emango dugula argi dago. Aukera honetaz gozatze-ko, badakizu, inguratu datoren hilaren 10ean, 13:00etan, Bermeora. Ez zaizu damutuko!

Kurtso amaiera Oinkariko-entzat berandutxo datorkigun arren, gure berri laster izatea espero dugu. Gainera, hartzera goazen opor labur hauetan emanaldi berria prestatzeko indarrak hartzeko asmoa dugu.

TOLOSA ▶

Udaberriko zerrendak ikusgai bihartik aurrera

Udaberri dantza taldeak jakinarazi duenez, bihartik aurrera ikusgai izango dira Igarondo igerilekuaren ondoan dagoen lokalean dantza taldean izena eman dutenen herritarren izenen zerrendak.

TOLOSA ▶

Pirinioetara irteera antolatu du Alpinok

Alpino Uzturre mendi elkar-teak Pirinioetara irteera antolatu du hilaren 9an eta 10ean. Bertan, Cabaleros eta Sum des Salettes mendiak igoko dituzte. Irteera larunbatean 06:00etan izango da Gorosabeleko autobus geltokitik. Izena eman nahi dutenek 40 euro ordaindu behar-ko dituzte elkartean. Gudari kalean, edota 943 65 27 89ra deitu beharko dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Orea. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Tratu txarrak salatu dituzte Bilgune Feministak deituriko konzentrazioan

Hilik aurkitu zuten emakumea gogoan izanik, 200 lagun bildu ziren udaletxearen aurrean

N. URBIZU

Tolosako Udaletxearen parean 200 lagun bildu ziren atzo, Bilgune Feministak deituriko konzentrazioan. Emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak salatuzko konzentrazioan R. C. G., ostegunean hilik aurkitu zuten emakumea gogoan izan zuten.

Bilgune Feministak prestatutako komunikatuan azpimarratu nahi izan zutena «tratu txarrek heriotzera bukatzen dutela» izan zen, «horretara heltzeko bidea edozein izanda

ere». Izan ere, Ertzaintzak ez du baztertzeko bere buruaz beste egitearen aukera. «Baina emaitza, berdina da; indarkeria sexista egon da kasu honetan».

Komunikatuan, besteen artean, «tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeak, presiopean bizi diren emakumeak direla» esan zuten: «askok, jazarpena gainditu ezinik heriotza aurkitzen dute».

Hildako emakumea duela urte eta erdi banandu zen, eta gutxienez salaketa bat badu senarrak bere kontra.



200 lagun bildu ziren Tolosako udaletxearen, Bilgune Feministak deituriko konzentrazioan. MADDI SOROA

Autopsiaren zain

Joan den ostegunean aurkitu zuten R. C. G. emakumearen gorpua, bere etxebizitzan, gor-

putzean indarkeria arrastoak zituela. Oraindik ere sumarioko sekretua da kasua, eta Ertzaintzak ez du argibiderik emango, autopsiak dioena ja-

kin arte. Antza, luzera joko du ikerketak, hainbat hipotesi baitaude: indarkeriaz hil da, baina norbaitek eragindakoa ala berak bere buruari egindakoa.

ANOETA ▶ GIZARTEA

V. Gazte Egun biribila izan da

Gaztetxearen balantzea «oso ona» izan dela azpimarratu dute partaideek

NEREA URBIZU

Anoetako Gaztetxean giro aparta lortu zuten atzo herriko gazteek, sagardo dastaketa, gosaria, bazkaria eta afariarekin. Gazteen bosgarren Eguna «bikaina» izan da.

Goizean gaztetxearen inguruko balantzea egin zuten. «Pozik» daude, «oso ona izan baita balorazioa; dena den, gaztetxean egiten diren gauzak gehiago eman behar ditugu ezagutzera, bide batetik edo bestetik», zioen gazte batek.

Sagardo dastaketa eta gosariarekin batera I. Kanika Txapelketa arrakastatsua jokatu zuten. Bertan, gosea egin zuten gero hantxe prestatutako paela jateko. 45 lagunek eman zuten izena, eta ondorengo jokotetan eta Bonbereneako Txarangarekin poteoan ibiltzeko gogoak piztu zituzten.

Afariaren garairako 60 bat lagunek eman zuten izena, eta, honela lortutako diruarekin futbito taldeei lagundu ahal izango zaie. Zuzeneko kontzertuen bitartean, berri, txirris-klasa izan zuten.

Futbito talde berria

Beste futbito talde bat egin berri dute, jubenilena. Arropak lortzeko, materiala eta partidak jokatu ahal izateko dirua behar zuten, lortu duten ia guztia horretarako izango da: «beste futbito taldearekin herriak duen harrera oso ona izan da eta horregatik bakarrik merezi du», dio gazte batek.

Aurten Anoetako kiroldegi berria erabili ahal dute partidak jokatzeko. Ea bi taldeak han ikusteko aukera dagoen.



Sagardo dastaketan ia botila guztiak agortu egin ziren. NEREA URBIZU

hitza
Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN praktikak egin nahi?
Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua
Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz Kredituak baliozkotuko dira
Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

udaltalde 21
Ermioakidea
VILLABONA
Irailaren 7an, 19:30ean,
Villabonako Udaletxearekin Areto Nagusian
Ekintza planari buruzko Herri Batzarra ospatuko da.
Etor zaitez!

NEKAZARITZA ▶

Baserriko emakumea aztergai

Landa-eremuan lanean arizen diren emakumeek bizi duten egoera aztertu du Farapi enpresak Eusko Jaurlaritzak agindutako txosten batean; hutsuneak betetzen saiatzea dute orain helburu

NEREA LIZARTZA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamenduak (Egokilan deitua) eskatuta, 2004 urtean hasi zen Farapi enpresa emakumeak Tolosaldeko landa-eremuan bizi duen egoera aztertzen.

Farapi enpresa gizarte antropologian adituak diren profesional talde batez osatua dago; berdintasunean, generoan eta immigrazioan adituak diren hainbat profesionalak osatzen duten taldea da, besteak beste. Euren lan egiteko moduan ikerketen arlo teorikoa metodologikoarekin uztartu ohi dute. Horixe egin du enpresa honek Foru Aldundiak eskatutako lanarekin ere bai; Tolosaldeko landa-eremuetako hainbat emakumerekin hitz egin eta beharrezkoak dituzten datuak bildu ostean, txostena egiteari ekin.

Bi urte igaro ziren lan osoa gauzatu zuten arte; 2006ko apirilean argitaratu baitzuten azkenik, emakumeak Tolosaldeko landa-eremuetan bizi duten egoeraren isla izango zen txostena.

Faseak eta helburuak

Nolanahi ere, ikerketa hiru faseetan egin zutela azaldu dute egileek; lehenik, erakunde-esparrua analizatu zuten. Ondoren, landa-eremuan bizi diren emakumeen bizimodua eta lan itxaropenak aztertzeari ekin zioten. Azkenik, berriz, proposamenak ezartzeko baliagarria izango zen planteamendu estrategikoa diseinatu zuten.

Itziar Martinez de Apellaniz Foru Aldundiko Gizarteratze eta Enplegu departamentuko Zuzendari Nagusia da eta HITZARI azaldu dionez «Gipuzkoako landa-eremuko emakumeen egoeraren gaineko diagnostikoa egitea genuen xede»; era honetan, euren laneratzeko bultzatzeko baliagarriak izango ziren ekintzak martxan jartzeko modua izango baikenuke».

Halere, azaldu dute analisisa egiteko Gipuzkoako baserrietan lanean aritzen diren emakume guztiak elkarrizketatzea ia ezinezkoa zenez, bertako hiru eskualde nagusietatik bat hartzea erabaki zutela; Tolosaldea izan zen azkenik hautatua. Eskualde honetako hamalau udalherri hartu dituzte txostena



Villabonako Argazberri baserrian emakume bat baratze lanak egiten ari da. IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

egiteko: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Asteasu, Balarraín, Berastegi, Bidegoian, El-duain, Hernialde, Larraul, Gaztelu, Lizartza, Orendain eta Oresa, hurrenez hurren. Kontuan izan behar da, gainera, hamalau herri horietan 5.215 biztanle bizi direla, Tolosaldeko hogeita zortzi herritan bizi diren 44.344 biztanleen aurrean; hau da, herri erdietan biztanleriaren zortzirena biltzen da. Txikiak dira, beraz, orokorrean, ikerketa egiteko hautatuak izan diren udalherriak.

Herri horiek izan dira, Foru Aldundiak eskatutako txostena eratzeko lagin moduan aukeratu direnak. Edonola ere, ikerketa honen harira martxan jartzea espero dituzten proiektuak eta berrikuntzak Gipuzkoako osoan aplikatzeko baliagarriak izatea espero dute egitas-

EGILEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta Farapi enpresa izan da ikerketa gauzatu duena

mo honen guztiaren bultzatzaileek. Behin betikoa izan zen txostena ere hiru zatitan banatzea: irizitu zuten hobekien: Analisi estatistikoa, azterketa etnografikoa eta praktika berritzaileak bereiztuta, alegia. Hiru atal horien arteko loturaren emaitza da apirilean argitaratu zuten txostena; zati guztiak eta eranskinak batuz gero jartzea espero dituzten proiektuak eta berrikuntzak Gipuzkoako osoan aplikatzeko baliagarriak izatea espero dute egitas-

HELBURUA

Landa-eremuetako emakumeek dituzten hutsuneak ikusi eta konponbideak ematen saiatzea dute helburu

ko biztanleriaren, enpleguaren, jarduera ekonomikoaren, azpiegituren, etxebizitzaren eta ekipamendu eta zerbitzuen gaineko azterketa sakona dira biltzen diren gairik garrantzitsuenen artean daudenak, besteak beste.

Azterketa etnografikoa, bestalde, generoaren ikuspegiak hainbat landa azterketa egin dira. Horiek guztiak beti ere, soziologia, geografia, historia, antropologia eta nekazaritza-ekonomiak izan ditzake-

en ikuspegiak ere aintzat hartuta egin dituztela azaldu dute egileek. Azkenik, praktika berritzaileen atala dago. Txosteneko azken zati honetan Tolosaldeko edota Gipuzkoako landa-eremuetako ekonomia eta gizartera garatzeko interesgarriak eta baliagarriak izan daitezkeen esperientzia batzuk bildu dituzte. Gainera, guztiak enpresa proiektuak, ekimen instituzionalak eta gizartera-marketingar kanpainak direla ere azzimarratu nahi izan dute.

Gipuzkoako eta Tolosaldeko landa-eremuetako emakumeen egoera antzekoa dela esan du Itziar Martinez de Apellaniz Foru Aldundiko Gizarteratze eta Enplegu zuzendaritzatik. Nolanahi ere, Tolosaldeko landa-eremuko biztanleriaren, enpleguaren, jarduera ekono-

TXOSTENA

Guztira 370 orri ditu lanak, eta landa eremuko emakumeek gaur egun bizi duten egoeraren isla da

ATALAK

Hiru atal ditu txostenak: analisi estatistikoa, azterketa etnografikoa eta praktika berritzaileak

mikoen, azpiegituren, etxebizitzaren eta ekipamendu eta zerbitzuen berri izatea zuten jomuga Foru Aldunditik. Era berean, arlo horietan izan zitezkeen hutsuneak ikustea ere bazuten helburu.

Foru Aldundiko Gizarteratze eta Enplegu zuzendariak azaldu du «emakumeek hartu dute hitza txosten hau burutzerakotan; horregatik, sektore honetan dauden beharrak protagonisten eskutik jasotzea lortu dugu». Modu honetan, landa-eremuetako emakumeek dituzten kezkek eta beharrak zein diren jakiteko parada izan dute Gipuzkoako Foru Aldundian.

Orain, zer?

Txostena egin ostean, emakumeak Tolosaldeko landa-eremuan nahiko egoera konplexua bizi duela konturatu ziren Gipuzkoako Foru Aldundian. Lehenik, egoera hori «mardul» aztertzen denbora dezente igaroz zutela azaldu du Apellani-zek.

Behin hori eginda, «Tolosaldeko edo Gipuzkoako landa-eremuan edozein taldek, elkarrek edo pertsonak sortutako ekintza edo praktika berritzaileei bultzada eta laguntza ematea da gure asmoa» gaineratu du.

Era berean, Tolosaldeko hainbat herritan sentsibilizazio kanpainak eta hitzaldiak egin direla eta gehiago egiteko asmoa dagoela azaldu du; «gure gizartean landa eremuko bizimoduaren gainean orokorren dagoen formakuntza teknikoaren beharrez ere jabetu gara ikerketa honen bitartez». Honen guztiaren ondorioz, informatika, telemarketing eta landa-eremuko kudeaketa ikastaroak antolatuta direla azaldu dute Gipuzkoako Foru Aldunditik.

Emakumea Tolosaldeko landa-eremuan dokumentua osorik irakurri nahi izanez gero, www.egokilan.net web orrian eskegita dago edonoren esku-
ra.

MAIDER ARAMENDI ▶ EMAKUME BASERRITARREN ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

«Oraindik, tamalez, ezkutuan dago emakume baserritarraren figura»

EBEL erakundeak hamabost urte daramatza emakume baserritarren eskubideak bermatzen; oraindik lan ugari dute egiteke berdintasunerako

N. LIZARTZA

Maidar Aramendi ibartarra Emakume Baserritarren Elkarteko (EBEL) koordinatzailea da. Bera baserritarra ez den arren, hainbat urtez dihardu lanean erakunde honetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratu duen txostenaren gainean zein balorazio egiten duzue erakundetik?

Guk iazko urte amaieran Foru Aldundiarekin izan genuen bilera batean jakin genuen txosten hau egiten ari zirela eta ideia oso ona iruditu zitzaigun. Hala ere, horretarako ez da gure iritzirik bildu edota gurekin kontatu. Beraz, Gipuzkoako emakume baserritarren erakunde honetan baserritar mordoan egonda, ez dugu ulertzen guregana ez jo izana.

Zein balorazio egiten duzue EBEL erakundetik, landa-eremuko emakumeek bizi duten egoeraren gainean?

Emakume baserritar asko dago gure eskualdean; edonola ere, ezkutuan dago oraindik emakume baserritarraren figura; kaleratzeke dago gizonaren itzalean. Halere, EBEL-ek martxan diharduen hamabost urte hauetan zehar, lortu da emakume baserritarraren figura pixkanaka kanpora ateratzea. Hemendik aurrera ere horretan jarraitzeko asmoz gaudu. Bestalde, aipatzeko da baita ere, eskualdeko emakume baserritarrek elkarren artean duten harremana nahiko eskasa dela, emakumeak, oro har baserritik gutxi irteten direlako.

Zein dira landa-eremuko emakumeak gaur egun dituen eginbeharrak?

Baserriarenganako duen jarrerara oso inplikatu da. Gero eta gehiago da emakumea, tamalez, etxeko martxa bere gain hartzen duena. Azken finean,



Maidar Aramendi, EBEL-eko koordinatzailea. NEREA LIZARTZA

hainbeste lanen artean beraienez denbora liberarako gelditzen zaizkien ordu baka-rrak lo egitekoak dira. Kontuan izan behar da, baserrietan normalean emakumea izaten dela etxeko kideen gizarte-segurantzaz arduratzen dena eta paradoxa badirudi ere, berak ez duela horrelakorik izaten kasurik gehienetan. Beraz, erretirorako garaian arazo handiekin aurkitzen da. Era berean, ez da ahaztu behar, gaur egun amatasun-baja hartzen

duten emakumeek ez dutela ordezkapenik izaten euren lanean. Baserriko lana gure gizartean oso garrantzitsua da eta ez dago batere ondo baloratua.

Egoera konplexua da, baina zein irtenbide ikusten diezue arazo hauei guztiei?

Nik argi daukat erakundeek mugitu behar dutela arazoa konpontzeko. Orain berdintasunaz benetan ari badira hitz egiten erakundeetatik, ikus dezatela errealitate guztia, baita

emakume baserritarrena ere. Emakume baserritarrak bi alde ditu: bat emakumea izatearena eta bestea baserritarra izatearena. Beraz, momentu honetan bi zati horiek bereiztu behar dira eta biek dituzten hutsuneak azpimarratu. Errealitate hori ikus dezatela erakundeek eta eman dezatela merezi denaren neurriko erantzuna. Horretarako, noski, egoera lehenengo pertsonan ezagutzea beharrezkoa da, baserrietako ateak jo eta emakumeekin zuzenean hitz egin.

Zein da arlo honi orokorrean eta emakumeari zehazki ikusten diozun etorkizuna?

Landa-eremua kinka larrian dagoela dirudi. Baserrietan gazteak hartzen dute erreleboa eta badira baita ere, kaleko bizitza utzi eta baserrietara bizitzera joaten direnak. Bestalde, etorkizunean emakume baserritarraren egoera hobetzen joango dela uste dut. Gure erakundetik horren aldeko apustu sendoa dugu eta itxaropen handiarekin gaude. Gizarte honetan pixkanaka bada ere, lortzen ari gara hitza eta gure lekua. Emakumeak gero eta gehiago ateratzen dira baserrietik kalera. Aurrerantzean, erakundeak ditugun eskaerak onartzen hasiko direla espero dugu.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Txakurkumeak. Setter ingeles (leveling) arrazakoak. Ehiza txakur onen kumeak. Deitu **647 144 070, 678 066 396.**

Argazki kamara. Nikon D50, 18-55 eta 55-200 objektiboak 1GBeko txartela eta poltxa. 10 hilabetekoa. Egoera onean. **600 026 085.**

LANA


Etxeko lanak. Alizon pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko.

Goizeko 08:30etik 13:30era. **669 21 33 37.**

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. **677 32 99 34.**

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentua. **635 74 52 91.**

Zaintzailea. Neska euskalduna behar da haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. **638 18 52 05.**



ASTEASU: Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.500.000 pzta.
TOLOSA: 3 logela. Eraberrituko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pzta.
TOLOSA: Zumalakarregi. 100 m2. Erabat berrituta.
VILLABONA: 2 logela. Kalitatezko materialak. Berogailua eta igogailua. Bikaina. 44.000.00 pzta.
VILLABONA: 75 m2 erabilgarriak. Txukuna. Altzariz hornitua. Hormigoizkoa. 36.000.000 pzta.
VILLABONA: 2 logela. Erdi eraberritua. 35.000.000 pzta.
VILLABONA: Eraikuntza berriko apartamentua, bikaina.
ZIZURKIL: Ertzeko etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.

Errota 2 - Villabona
Olatzinmo@euskalnet.net
943 243 118 - 635 706 728

Zizurkilgo Plaza Etxeberri jatetxean kamareroak behar ditugu lanaldi osorako
616 647 869

